

3. IFZ ESKATZEA (ENTITATE EZ-EGOILIARRA)

3.1. ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABEKO ENTITATE

N letraz hasitako IFZ bat esleituko zaio Gipuzkoan zerga izaerakoak diren edo zerga alorrean ondorioak dituzten ekintzak edo eragiketak egin behar dituenean, aurretik beste administrazio batek IFZ bat eman ez badio. Aurkeztu beharko ditu:

- 036 eredua (1., 2. eta 3. apartatuak, eta II. eranskina), behar bezala beteta eta entitatearen ordezkariak sinatuta.
- Entitatearen existentzia frogatzen duen dokumentua. Hauetako bat izan daiteke: jatorrizko herrialdean eratu izanaren eskritura, erregistro ofizial batean inskribatutako estatutuak, edo notario edo agintaritza fiskal baten ziurtagiria. Dokumentazio horrek itzultzaile ofizial batek itzulita egon behar du.
- Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza frogatzen duen agiria, haren IFZrekin batera. Ahalordeak Espainian eman ez badira, Hagako apostilla jasotzen duen kopia legeztatua aurkeztu beharko da, itzultzaile ofizial batek itzulia. Ordezkaritza dokumentuak publikoa edo pribatua izan beharko du, notario batek legitimatutako sinadurarekin edo "apud-acta" emandako ahalordearekin.
- Pertsona baimenduak aurkeztutako eskaeren kasuan, aurreko guztiaz gain baimena frogatzen duen dokumentazioa ere aurkeztuko da.

Aurkezteko lekua, jarraibideak eta bestelako datuak: [036 Gipuzkoa](#)

3.2. ENTITATE EZ-EGOILIARRAREN ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRA

W letraz hasitako IFZ bat esleituko zaio establezimenduaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean, 16/2014 Foru Arauko 11. artikulua araberak. Aurkeztu beharko ditu:

- 036 eredua (1., 2. eta 3. apartatuak, eta II. eranskina), behar bezala beteta eta entitatearen ordezkariak sinatuta.
- Establezimendu iraunkorraren existentzia frogatzen duen agiri fede-emailea.
- Entitatearen existentzia frogatzen duen dokumentua. Hauetako bat izan daiteke: jatorrizko herrialdean eratu izanaren eskritura, erregistro ofizial batean inskribatutako estatutuak, edo notario edo agintaritza fiskal baten ziurtagiria. Dokumentazio horrek itzultzaile ofizial batek itzulita egon behar du.
- Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza frogatzen duen agiria, haren IFZrekin batera. Ahalordeak Espainian eman ez badira, Hagako apostilla jasotzen duen kopia legeztatua aurkeztu beharko da, itzultzaile ofizial batek itzulia. Ordezkaritza dokumentuak publikoa edo pribatua izan beharko du, notario batek legitimatutako sinadurarekin edo "apud-acta" emandako ahalordearekin.
- Pertsona baimenduak aurkeztutako eskaeren kasuan, aurreko guztiaz gain baimena frogatzen duen dokumentazioa ere aurkeztuko da.

Aurkezteko lekua, jarraibideak eta bestelako datuak: [036 Gipuzkoa](#)